

## BOTATAKO ELIKAGAIEN GAINEKO IKERKETA

### Jarduera honekin, zera landuko dugu

Elikagaiak botatzearen aurrean erantzukizunez jokatzeari buruzko kontsumitzaile arduratsuak izatea.  
Janaria alferrik ez botatzeko jarraibideak.  
Garapen jasangarriko 2., 12., 14. eta 15. helburuak.

### Iraupena

Jarduera hau denbora puxka baten egiteko dago pentsatuta; gutxienez astebetean.

### Behariko dugun materiala

Elikagaiak botatzeari buruzko datuak eta jarraipena egiteko fitxa.  
Ikasgelan ikusteko bideoak:

[Elikagaiak botatzeak uzten duen aztarna](#) eta [Elikagaiak botatzeak uzten duen aztarna 2](#), biak FAO erakundeak eginak.  
[Hondakinak](#), WWF erakundeak babestua.

### Zikloak 1, 2, 3

### Garapena

#### 1. fasea

Taldeak osatu. Talde bakoitzari «Jarraipena egiteko fitxa» batzuk eman. Astebetean, inguruan botata ikusten dituzten elikagaiei buruzko datuak hartu behar dituzte ikasleek. Batik bat eremu hauek ikertu behar dituzte:

- Ikastetxea, jolastokian nahiz jantokian.
- Elkartzan diren lekuak (urtebetetzeak, festak...).
- Etxetik kanpoko establezimenduak (hanburgeseriak, pizzeriak, jatetxeak...).
- Inguruko parkeak.

#### 2. fasea

Astebete geroago, talde bakoitzeko kideek bateratu egingo dituzte beren ikerketaren emaitzak, eta alderdi hauek apuntatuko dituzte:

- Zer elikagai mota ikusi dituzten botata. Datu zehatzagoak izateko, batera ditzatela taldeko kide guztiek aurkitutakoak.
- Zergatik bota dituzten elikagai horiek zakarrontzira. Bakoitzak eman dezala bere iritzia eta ikus dezatela zergatiren bat nagusitzen den.

Talde guztiek amaitu dutenean lana, bateratu egingo ditugu ondorioak eta datu nagusiak arbelean idatziko ditugu. Horrela, errazago ikusiko dituzte taldeek ateratako ondorioak.

### Hausnarketa

Emaitzak bateratu, eta horien gainean hausnartu:

- Zaila iruditu al zaizue ikerketa egitea? Zergatik?
- Batez ere non botatzen dituzte elikagaiak?
- Bota dutenetik zer iruditu zaizue deigarriena?
- Botatako elikagaien gaineko datu orokorrak ikustean, harrিতuta geratu al zarete?
- Elikagaiez gain, energia eta ura ere ondo erabili behar ditugula esaten digute behin eta berriro. Ez al zaizue iruditzen ez genituzkeela alferrik erabili edo bota behar?

- Janaria, energia eta ura alferrik botatzeak kalte egin al diezaieke beste pertsona batzuei?
- Guk gehiegi erabiltzen baditugu, beste batzuei ez al zaie gutxiegi geratuko?

Bukatzeko, ikusi proposaturiko bideoren bat edo bideo guztiak. Behar den guztietan gelditu eta sortzen diren zalantzak argitu, edukia denek ondo uler dezaten.

Jarduera honen emaitzekin, hausnarketa barne, *Kanpaina egiten 1 eta 2* jardueretara igaroko gara.

### JARRAIPENA EGITEKO FITXA

Lekua: non topatu duzuen elikagaia botata (zakarrontzietan, jantokian...).

Mota / Kopurua: zer elikagai topatu duzuen botata eta gutxi gorabehera zenbat.

<b>Data</b>	<b>Lekua</b>	<b>Elikagai mota / Kopurua</b>	<b>Oharrak</b>